

Igelakoekin solasean

Óscar DE MIGUEL*



Munduan badira argitaletxe ttiki aunitz eta gehienek badute bide zailetan barrenean ibiltzeko ohitura, argitaratzen dutena korrante handietatik kanpo gelditzen delako. Hitzun gutxi duten hizkuntzeei erreparatuz gero bada beste zailtasun iturri bat, merkatua oso meharra baita. Euskaraz argitaratzen dutenek hori arrunt ongi dakite, erakusten duten ausardia frankotan harrigarria izanik, baina ausardiaren araberako sailkapen bat eginen bagenu goiko postuetan *Igela* argitaletxe nafarra aurkituko genuke, 1989ko apirilaren 14an (lehenago ere historian asmo berri-

tzaileak garatzen hasteko markaturiko eguna) hiru tolosarrek (Xabier Olarra, Joseba Urteaga eta Jose Manuel Gonzalez) Iruñean sortutakoa. Ausardia euskaraz argitaratzeagatik eta nobela beltzaren arloko munduko obrarik inportanteenetako batzuk itzultzeagatik. Horretarako 16 urte hauetan egindako lana ez da txikia izan (itzulpen asko beraiek eginak dira...) eta oso bilduma txukuna osatu dute (obrak eta sailak weben kontsultatzen ahal dugu: www.igela.com/), baina, tamalez, euskaraz irakurtzeko gauza diren askok euskarazko itzulpenak irakurtzeari (edo irakurtzeari, zuzenean) oraindik muzin egiten dio. Egindako bidea eta etorkizunari buruz gehiago jakiteko Xabier Olarrarekin solas egin dugu.

85

—Itzulpenak euskaraz... Ez dirudi makala. Nola sortu zen asmoa?

—Gutako bi irakaskuntzakoak ginen eta han irakurgai... ikasleei emateko liburu atseginak bilatzen genituen. Horrek mugituta hasi ginen honetan pentsatzen eta honelako batean horrelako planteamendu bat egin genuen, liburu zerrenda bat, besterik gabe, baina horiek itzuliak ez genituenez aurkitzen, itzultzen hasi ginen.

—Hortaz, zuek irakaskuntza arlotik argitarapen mundura etorri zineten

—Bi, bestea grafikaren mundutik eta, gutxi gorabehera, horretan egin du hark lan, paperarekin eta gauza teknikoetan.

* Barañaingo Herri Liburutegia

—Garai hartan ez zen antzeko asmorik argialetxeen artean?

—Bai, bazen eta ni itzultzaile Elkarren argitaratzen hasi nintzen, esaterako. Han argitaratu nituen nire lehenbiziko obrak. Baina lan hori serio hartzeko planteamendurik ez zegoen. Esate baterako, Elkar bezalako argialetxe batean, ni joan nintzen nire liburuarekin "Aizue, hau argitaratu nahi duzue?" eta horrela funtzionatzen zen. Guk hutsune edo bide hori ikusi genuen eta esan genuen "Gu hasi egingo gaituk". Orduan ez zegoen ez EIZIE, ez Eusko Jaurlaritzaren planik (ehun obra itzultzeko, klasikoena...) ez zegoen ezer, horiek denak gero etorri ziren. Beraz, elkarri traba egin gabe, haiek bide batetik eta beste argialetxeak ere beste bide batetik eta gu guretik hasi ginen.

—Nolako bilduma egin nahi zenuten hasieran? Ba zen barne koherentziarik edo han-hemenka harturiko tituluak ziren?

—Lerro bat markatu genuen. Liburu beltz arloko liburu aukeratuen sail bat antolatu eta "hauek egingo ditugu piskana-piskana" esan genuen eta horretaz aparte literaturan gure gustokoak ziren beste zenbaitzuk, gure irakurle ibilbidean ezagututako liburuak begiratu eta pentsatu "honek euskaraz egotea merezi dik". Eta gezteentzako liburu espezifikoak ere beharko dira, *Enigma* Sailekoak edo. Honelako planteamendu orokorra zen, ez hasieratik "bada, berrehun liburu hauek", baizik ildo batzuk markatu eta hortik joan, besterik gabe.

—Eta argialetxearen sorreran zein zen zuen asmoa, luzaz iraun edo liburu batzuk argitaratu, euskarazko literaturan zen hutsunea betetzeko eta desagertu?

86

—Guk segitzeko asmoa genuen sorreratik eta ahal baldin bazen hori gure bizibidea egin ere bai, baina hau ez da posible izan. Bakoitzak bere lanbidea du eta hortik bizi gara; gero honetan aritzen gara, jendea liburuak itzultzeraz bultzatzen, baina argitaratzeko asmoarekin eta itzulpen lanik handiena ere geuk egin dugu.

—Horrela, 1988an *Igela* sortzea erabakitzen duzue. Garai hartan zein ziren argialetxea sortzeko ikusten zenituzten problema handienak, zein zuen beldurra?

—Bada, orain ere baditugunak. Bagenekien itzulpenak nolako harrera duen eta oso liburu gutxi salduko genuela, oso liburu gutxi salduz dirua galtzen hasiko ginela eta serguraski horrela segiko genuela. Dirua galduz luzaro egon daiteke, baina lan asko egin behar da etekin gutxi ikusteko. Hori zen problema nagusia: merkatu handirik ez dago euskal liburuarentzako orhar, itzulpenentzat are gutxiago eta liburuak garestiagoak dira (eskubideak ordaindu behar dira, itzulpen lanak garestiak dira...). Horrek zulo ikaragarria ematen du eta hasieratik antzemandakoa oso garbi gelditzen da urteen poderioz; bost bat urte pasatzen direnean egoera hori egun batetik bestera ez dela aldatuko ikusten duzu. Hambost urte pasa dira eta zerbait konpondu dela ematen badu ere ez da ezer konpondu eta orain dauden problemak lehen ere bazeuden.

—Eta bidea horren zaila izanik hasierako hiru kideek atxikitzen duzue asmoa edo baten batek utzi du?

—Ez, hortantxe segitzen dugu. Orain lan guztia gure gain hartu beharrean, garai batzutan egin bezala, bada... beste batzuei ere pixka bat pasa. Bide horretan azken urteetan lankide onak

aurkitu ditugu, nolabaiteko laguntza eman dutenak, ia musutruk aritu direnak. Gurean denetarik izan da: erabat musutruk, barrengoak, ia-ia musutruk beste batzuk eta merkatuko ia prezio normalean pagatu zaienak.

—Zenbat zarete gau guztira, kideak eta horrelako laguntzaileak baturik?

—Bada, dozena erdi bat lagun.

—Lehenxeago eskubideen gaia aipatu duzu. Zuen bildumako liburu batzuk *dominio publiko* delako egoeran dira. Hori, *dominio publikoan* izatea, bilduma osatzeko munta handiko irizpidea da zuendako?

—Ez dugu horrelako liburu asko. 60 atera baditugu, *dominio publikokoak* ez dira hamar ere izango, Serlock Holmesenak, Henry Jamesenak eta horrelakoak, hemeretzigarren mendeko autoreenak, baina hogeigarren mendeko atera dugun gehiena, dena ez esateagatik, eskubideak pagatuta izan da. Irizpidea guri zein liburu interesatzen zaigun da, noski alde ekonomikoa ere kontuan hartuz, baina pagatu behar bada, pagatu egiten da.

—Bilduma hori antolatzean, zergatik sortu zenituen gaur dituzuen sailak? Lehen Nobela Beltza aipatu duzu, baina atal horretan sartu liratekeen titulu franko zuen sail guztietan azaltzen dira.

—*Sail Beltza* delakoan egile amerikarrei eta Raymond Chandler, Dashiell Hammet eta inguru horretan mugitzen den jendeari garrantzia eman genien. Gero *Enigma Saila* antolatu genuen eta hor Conan Doyle, Agatha Christie eta lerro horretakoak. Misterio eta hilketak tartean daudela zaku berean sartzen dira bilduma batzuetan, baina guk bereizteko beharra ikusi genuen, bi mota desberdineko irakurleak izan dituzaketeelako eta berez desberdintasunak badituztelako. Hori horrela antolatu genuen eta gero literatura orokorra edo ingelesez "mainstream" esaten dena, hor P. Highsmith bat sartu da, baina hori salbuespen bat izan da ia, hain zuzen ere Highsmithek berak ez zuela nobela beltzeko idazle kontsideratua izan nahi esaten zuelako, baizik eta idazlea soilik. Sail horretan gainontzeko guztiak sartu ditugu. Hortaz gain badugu sail tiki bat, *Mintaka* izenekoa, gazteendako pentsaturikoa, baina horrek oso bide laburra egin du.

87

—Idazle estatubatuarren presentzia nabarmena aipatu duzu. Baduzue asmorik europarrak edo (Vázquez Montalbán, Mankell...) argitaratzeko?

—Ez dugu esaten ez ezezkorik ez baiezkorik. Ez dugu horrelako aposturik egin, nahiz eta Boris Vian frantziarra argitaratu dugun, hori salbuespena da. Arlo horretan europarrak *Enigma* sailean daude, baina guk ez dugu pauso markaturik, lehendik pentsatutakoak oraindik atera gabe dauzkagulako.

—Nola moldatzen duzue argitaratu behar duzunaren programazioa? Baduzue urtean finkaturiko kopuru bat?

—Ez dugu kopururik. Urtebete lehenago "datorren urtean hiruzpalau hauek" esaten dugu, orduan itzultzaile posibleekin kontaktuak egiten hasten gara.

—Argitaratze aurreko harreman horiek egiten hasten zaretenean (batik bat eskubideei dago-kienez) harritzen dira beren lanak horrelako hizkuntza ttiki batez argitaratzeko asmoa ikusita?

—Guk ez dugu izaten kontaktu zuzenik idazleekin, beraien ajenteekin baizik. Normalean pozten dira horrelakoa ikusten dutenean. Esate baterako, laster Mark Haddonekin kontratua sinatuko dugu, iaz espainolez bere *El curioso incidente del perro a medianoche* argitaratu zen eta guk seguraski datorren urtean argitaratuko dugu. Bada, lehenbiziko kontaktua ajentearekin egiten duzunean harriturik gelditzen dira, baina haientzat beste hizkuntza bat da eta azkenean egilearentzat eta besteentzat diru bide bat. Ez dugu horrelako oztopo berezirik izan, zailtasunak bai, gure tiradak oso txikiak izaten direlako (mila ale normalean) eta, kalkuluak egin- da, horrelako batentzat huskeria bat da; guk Amélie Nothomb argitaratu dugu: Frantzian 250.000 ale saltzen dira eta euskaraz 1.000 saltzeko lanak egin behar dira.

—Euskaraz irakurtzeko gauza direnen artean aldaketa sakonak gertatu dira hondarreko urte-etan: aken 17 urteetan jende multzo hori biziki handitu omen da, gazte franko alfabetaturik baita. Beraz, teorian behinik behin, orain zuen lanek badute irakurlego zabalagoa hasieran baino. Aldaketa hori nabaritu duzue edo jendeak oraindik erdarazko liburua bilatzen du?

—Seguraski erdaraz irakurriko du edo bestela guk argitaratzen dugunerako erdaraz irakurria izango du. Batzuk bai, noski, baina nik ez dut uste jende gehienak guk atera ditugun liburuak irakurriak dituenik lehenago beste hizkuntzetan, ez dut uste. Ez dago ohiturarik gauza itzuliak irakurtzeko, seguraski ohitura horiek ez dute 10 urte behar, 30 baizik. Euskaraz alfa- betaturik omen diren horiei errazago egiten zaie erdaraz irakurtzea, edo deus ere ez irakurtzea, datu objektiboek hori estaen dute eta kondizio horietan gureak zailtasu- nak izaten segitzen du. Irakurle horiek guztiak benetan euskaraz irakurriko balute

88



gure liburuek tirada handiagoak izan beharko lituzkete eta gure tiradak ez dira inondik inora ere orain dela 18 urtekoak baino handiagoak, baina ez bakarrik obra itzulietan, besteetan ere ez. Lehen liburu gutxi ateratzen zen eta tirada handiak izan zezaketen, orain liburu asko daude, beraz ezin dezakete horrenbesteko tiradarik izan; horrek (tirada handiak izatea) euskaldun bakoitzak urtean 50 liburu irakurtzen dituela esan nahiko luke eta 50 liburu irakurtzen dituztenak gutxi dira. Bestalde, orain dela hamabost urte obra itzulien eskaintza txikia zen eta orain askoz zabalagoa da.

—Zure ustez bada alderik euskal irakule eta erdal irakurleen artean? Euskaldunek gehiago irakurtzen dute?

—Ez dut uste. Euskaldunen artean izan da jendea bultzatzeagatik liburuak erosten zituena, nahiz eta ez irakurri, bere seme-alabentzat edo, baina hori ere agortu da. Orain jendeak ez irakurtzeko ez du erosten. Hori nik ikusten dudana eta egiten dudana ideia da, baina benetako daturik ez da. Nork esan dezake zein den erosten duenaren eta irakurtze duenaren arteko lotura?

—Beraz, erosleen artean nolabaiteko "militantzia kulturala" delakotik merkatu normalizatu batera pasa gara.

—Pasatzen ari gara. Ez gara erabat pasa, baina fenomeno hori gertatzen ari da. Ez dakit zenbateraino den egina edo alde batzuetan bai eta jende baten artean ez. Baina honelako aldaketa bat izan da.

—Nolako aldaketak ikusi dituzue euskarazko obrekin aritzen diren argitaletxeen artean hondarreko 17 urte hauetan?

—Hori baloratzen oso zaila da. Batzuk mantentzen dira, baina bidea neketsua da denentzat, dudarik ez. Batzuk hobeto kokatuak daude eta merkatuaren funtzionamenduan hobeto mugitu dira, horiek ere izango dituzte bere problemak, baina hobeto eraman ahal dute hori guztia. Bidea neketsua denean batzuk bidean gelditea ez da harrizkoa. Geuk ere, hasieran geneuzkan asmoetatik lurra zapaltzen hasi gara eta egin nahi genuen guztitik ezin da dena egin, horrelakoetan ahal dena egin behar da.

—Lehen hasierako beldurrak kontatu dizkiguzu. Zein ziren zuen esperantzak?

—Gure esperantza hau zen: hainbat liburu kaskar idazten dira eta irakurtzen dira euskaraz, bada eman diezaizkiegun liburu hobeak euskaraz eta irakurriko dituzte. Horregatik guretzat obra inportanteak zirenak euskaratzen hasi ginen. Hori esperantza bat zen, baina praktikan ez da hola gertatu, jende batek segitu du euskaraz idatzitako nobela beltz kaskarrak irakurtzen itzuliak aurrean edukita, seguraski markaturiko bideak dituelako. Guk, berriz, hori guztia aldatzeko marketing departamendua, diru mordo bat eta ez dakit zer beharko genuen, baina ez dugu hori izan eta ahal izan duguna egin dugu.

—Belaualdi berriei esker panorama aldatzea espero duzue?

Nik ez dut uste aldaketa nabarmenik ikusiko denik. Ni etsita nago, jubilatuko naiz eta gauzak berdintsu jarraituko dute ez badute okerragora egiten, irakurtzaletasunak ez baitu gora egin azken urteetan. Baina bide neketsuetan ohituta gaudenez segiko dugu gure nekearekin ahal dugun arte.

—Eta bide neketsu horretan laguntza instituzionalik bada?

Bada. Eusko Jaurlaritzak urtero 300 liburu hartzen ditu eta hori gurea bezalako argitaletxe batentzat ez da gutxi. Gure bezerorik inportanteena hori da. Nafarroako Gobernuak lehen ehun edo hirurogei edo berrogeitamar hartzen zituen, gero hartzeari utzi zion. Orain ale bat ere ez eta datorren urterako ere ez. Europako laguntzak ere badaude, itzulpenerako laguntzak noiz edo noiz hartu ditugu, horri esker itzultzailearen lana pagatua izateko aukera bada. Horrek guztiak bide neketsua horretan gauza eramanezina ez dadin izan laguntzen du; neketsua baina eramangarria, besterik gabe.

—Bukatzeko galdera orokor bat: liburua hiltzeko bidean da komunikazio tresna berriek markaturiko garai honetan?

—Eztabaida hori etorri da eta etorriko da eta beste ehun urtez segiko du. Seguraski aldaketak izango dira eta jendeak ez du honelako interes handirik izango kultura mila lekutatik iritsiko zaiolako. Baina beti izango dira sektore liburuzaleak.